



ALTXA BURUA MUGIMENDUAREKIN ATXIKIMENDUA

Teknologia digitalaren erabilera egokia bultzatu nahi duten gurasoek sortu eta sustatutakoa da Altxa Burua mugimendua. Seme-alaben ongizateak kezkatzen gaitu; eta hezitzaileoi ere berdin, gure ikasleen ongizateak. Ebidentzia zientifikoek teknologia honen erabilera haur eta nerabeen ongizate fisiko, emozional zein sozialean eragin zuzena duela agerian utzi dute.

Mugimenduak 20.000 atxikimendutik gora ditu jadanik – eta igotzen dihardu - EAE eta Nafarroan hedatu delarik. Saretzen eta elkarlanean ari gara, bolondreski, denok baturik gure gaztetxoengatik ongizatearen alde.

Ondorengo helburu nagusiek gidatzen gaituzte:

1. Gure seme-alabei Internetarako sarrera duten gailuak emateko unea atzeratzea eta honetan hezitzea.
2. Ikastetxeak telefono mugikorrik gabeko arnasgune bilakatzea.
3. Gizartea sentibilizatzea eta prestatzea, bai familiak, bai ikastetxeak, teknologia digitalaren erabilera arduratsu, osasuntsu, libre, eta ebidentzietan oinarritutakoan.

Ikastetxe eta familiok elkarren ondoan norabide berean arraun egin behar dugu, gure txikien osasuna eta garapen egokiaren alde. Elkarlana, hausnarketa partekatua eta zubi sendoak eraiki behar ditugu gai honetan ere.

Bat eginik indartsuagoak gara.

Erronka handia dugu eskuartean. Indibidualtasuna gainditzen duen erronka bati buruz ari gara, gure txikien ongizatea baitago jokoan. Familia eta ikastetxeez gain, erakundeek ere dagokien ardura beregain hartu eta erantzun irmoa eskatzen duen kontua da hau.

Goazen elkarlanera. Gaurko haur eta nerabeak etorkizuneko helduak dira.

_____, ikastetxeak
Altxa Burua mugimenduarekin bat egiten du; eta behar den tokian adierazteko baimena ematen dut.

Sinadura eta zigilua

_____- (e)n, 2025eko _____ -ren _____ - (e)an.